

Itoiz 'Solidarioak Europan'

Berlingo Brandenburgoko Ateraino eramán dute salaketa Itoizko 'solidarioek'

Zazpi lagun igo, eta proiektua salatze­ko pankarta erraldoia zintzilikatu zuten

Erredakzioa / Iruñea

Itoitzekin Elkartasuna taldeko zazpi kide igo ziren atzo goizean Berlingo Brandenburgoko ate gainera, eta bertatik zintzilik jarri proiektu honen kontrako pankarta. Atzo iluntzean artean atxiloturik zeuden zazpi kideak, eta gaua komisaldegian igaroko zutela espero zen.

EUROPAN zehar talde hau egiten ari den protestaldiaren barruan Berlingo Brandenburgoko ate gainera igo ziren atzo Itoizko Elkartasuna taldeko zazpi kide. bertan kateatzeko gero. Ekintza ez zen espero bezala atera segurtasunezko zerbitzuen erreakzioarengatik, baina oihartzun handia izan zuen bertako komunikabideen artean.

Goizeko 11etan bildu ziren garai batean bi Alemaniak bereiztu zituen atearen aurrean Itoizko Elkartasuneko kideak. Asmoa zuten bertara igo eta 30x7 metroko pankarta erraldoia eskegi, eta gero lau eskalatzaille zintzilik jarri. Gainera, beste hiru kide giltzaporroekin kateatuko ziren ate gaineko zaldi-gurdian.

Atzo goizean Berlinen zegoen hormak eta elurrak ordea zaildu egin zuen operazioa, eta horretan ari zirela monumentua zaintzen duten zintzeko goardiak barruko eskailera batetik igo eta ekintzaileen ahalegina oztopatu zuten. Ondorioz, hiru ekintzaile bazterreko teilatu batetik igo, pankarta erraldoia eskegi eta giltzaporroekin kateatu ziren gero. Beste bi lagun, preso­z jantzita, zintzilik gelditu ziren

Elkartasun taldeko kideek azpimarratu zuten ekintza osoan zehar izan zen polizia kopuru handia. Ekintza hasi eta berehala bertara iritsi ziren suhiltzaileen bi kamioi, eta beranduago, beltzez jantzita, Polizia Federalaren ekintza berezietarako kideak. Hauek moztu egin zituzten, erradialen bidez, *solidarioak* kateatuta zeuden euskarriak, suhiltzaileek airezko koltxoia paratzen zuten bitartean, balizko erorikoen ondorioak ekiditeko. 13:30etan kide guztiak atxilotuta zeuden.



Goiko irudian, alemanierazko pankarta («Natura zaintzeagatik bost urteko kartzela. SOS Itoiz»), atzean Brandenburgoko Atea ikusten dela. Behean, bi 'solidario' —preso jantzian— atxilotu zituzten unea.

Ekintza Berlingo Robin Hood taldearen babesa izan zuen eta lerro hauek idazterako orduan artean atxiloturik zeuden ekintzaileak. Berlingo jakinarazitakoaren arabera, kalteak eragitea eta baimenik gabe sartzea leporatu die Poliziak, eta gaur bertan egingo diete epaiketa.

Hirugarren ekintza sonatua

Ekintza egin bitartean, behean laguntza taldeko hainbat kidek komunikatua banatu zuten oinezkoen eta turistaren

artean, salatuz proiektu hau eta iaz zortzi kideei jarritako kartzela zigorra.

Hau da *solidarioek* Europan egin duten hirugarren ekintza sonatuena, Londresko Milurtekoaren Norian eta Hagako epaitegian burututako ondorengatik. Ingalaterran eta Holandan ez ezik, Belgikan ere dozenaka ekitaldi eta hitzaldi eman dituzte talde honetako kideek, eta Alemanian 15 dituzte jada antolatuta, proiektuaren inguruko informazioaz gain, lanak geldiarazi zituen sabotaiaren irudiak emateko.

Ahetzeko oposizioak eraikitze baimen baten legezkotasuna dudan ezarri du

Auzapezaren jokamoldeak salatu eta auzitan ezarri ditu

Eneko Bidegain / Ahetze

JEAN-PIERRE ETXEBE-
RRI Ahetze Bestela oposizio­ko zerrendako hautes­
tsiak Pierre Cocagne auzapezaren jarrera salatu zuen atzo, eraikuntza baimen bat dela eta. Herriko Etxeak lur bat saldu zion COL bizilekue­
taz ardura­
tzen den erakundeari eta bertan egoitzak eraikitze­
ko baimena eman. «Herri­
ko Etxeak duela bospasei urte erosi zion lur hori, Lafitte jaunari. Honek saldu zuen gazteentzat erabiler­
a aintzerako gela eraikitze­
kotan. Lur horren gainean, beraz, gisa horretako gela bat baizik ez da eraikitzen ahal», ohartarazi zuen Etxeberri­
k eta orroitarazi baduela hoge­
i urte Cocagne auzapezak holako gela bat hitzemaiten duela.

Udalak lehenbiziko eraikitze baimen bat eman zion COLi 1997ko abendu­
an, zerbitzu askotariko gunea eta egoitza sozialak eraikitze­
ko. Ahetze Bestela taldeko hautetsiek erre­
kurtsoa aurkeztu zuten eta irabazi, baimen hori ez zelako lur­
raren okupazio planaren gisakoa.

1998ko otsailean bigarren baimen bat eman zuen herriko etxeak. Baimen horren kontrako erre­
kurtsoa Bordeleko dei­
a­
uzitegian aztertzen ari dira.

«Auzapeza lanen abiatzera ausartu da, erre­
kurtsioa izanik ere. Arriskuak hartzen ditu», abisatu zuen Etxeberri­
k.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

HAUTESLE-ZERRENDEN ERAKUSKETA

Herritar guztiei jakinarazten zaie, indarrean dauden Hautesle Zerrendak, jendaurrean ezarrita egongo direla urtarrilaren 24tik 31ra bitartean, biak barne.

Zerrendan sartze­
ari edota bertatik kentze­
ari dagozkion murtziloak soilik onartuko dira.

Erakusketa orduak ohizkoak izango dira, goizeko 9etatik arratseko 9etara, l­
jentea kaleko Udal Bulegoetan.

Donostia, 00/01/19
ODON ELORZA, ALKATEAK